



"KRISIAREN BEHATOKIA" PROIEKTUA

Kulturaren Euskal Behatokiak, COVID-19K sortutako egoera kritikoaren aurrean, mekanismo bat abian jartzea proposatzen du kultura arloan duen eraginaren jarraipena egiteko. Proposamen honetan, eragin horren jarraipen dinamikoa egiteko planteamendua jasotzen da.

1. Testuingurua

Egoera orokorra

COVID-19 birusak eragindako osasun-larrialdiko egoerari aurre egiteko 2020ko martxoaren 14an ezarri zen Estatuan alarma-egoeraren deklarazioa –hamabost eguneko iraupena izango duena eta apirilaren 12ra arte luzatuko dena–. Pertsonen zirkulazio-askatasunari eragin dio, eta museo, artxibo, liburutegi eta ikuskizun publikoak egiten diren lokal eta establezimenduen itxiera ekarri du. Berez, kultur jarduerak egiten diren esparru guztiak itxi ditu.

Martxoaren 17an, ezohiko premiazko neurriak jasotzen dituen Errege Dekretua argitaratu zen, COVID-19ren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko. Horien artean daude langile kalteberei zuzendutako neurriak, hala nola autonomoei zuzendutakoak, jarduera aldi baterako doitzeko mekanismoak malgutzeko neurriak kaleratzeak saihesteko, ERTEak adibide, eta jarduera ekonomikoari eusteko likidezia bermatzeko neurriak.

Martxoaren 27an, beste errege-Dekretu bat argitaratu zen, lan-arloan neurri osagarriak hartzeko, merkatuan gertatzen ari den geldialdia eta aurkeztutako ERTE kopuru handia kontuan hartuta. Horien artean daude, besteak beste, krisiaren ondorioz ezinbesteko egoeran justifikatuta kontratuak amaitzeko edo kaleratzeak egiteko debekua, langabezia-prestazioen tramitazioa eta ordainketa bizkortzea edo ERTEen aldi baterako iraupena mugatzea.

Azkenik, martxoaren 29an (igandea), funtsezkoa ez den jarduera ekonomiko oro geldiarazi da, martxoaren 30etik apirilaren 9ra biztanleriaren konfinamendu orokorrarekin.

Sektorearen erantzuna

Alarma egoera ezarri zen unetik, kultura-sektore ezberdinak inpaktu azterketak egiten hasi ziren, edo Behatokiaren laguntza eskatu zuten egoeraren inguruko informazioa biltzeko tresnak martxan jarri asmoz.

Kulturaren alor guztietan zer eragin duen jakiteko premia larria dagoela ikusita, **mekanismo bateratu bat abian jartzea** proposatzen da, bizitzen ari den errealitate kritikoari buruzko datuak eskuratzeko eta, haren eragina arintzearen, neurriak aurreikusteko.

2. Helburuak

Helburu orokorra da COVID-19k sortu duen egoeraren inpaktua ezagutzeko gailu dinamiko bat abian jartzea.

Zehazki, COVID-19k kultura-sektoreetan duen **eraginaren azterketak eta jarraipenak** xede hauek dituzte:

- **Krisiaren aurreko egoera** ezagutzea kulturaren eskaintza eta eskariaren inguruan. Beharrezkoa da aurretiko egoerari buruzko informazioa izatea, kultura sektoreek 2019an eta 2020ko urtarrilean eta otsailean izandako jarduerari buruzko datuak, inpaktua neurtzeko erreferentzia izan daitezen.
- **Krisiak kultura sektorean duen eragina** aztertzea. Martxoa da inflexio puntua, eta dagoeneko indarrean dauden neurriekin, jarduera geldiarazteak bete-betean eragiten dio apirilari, eta pentsatzekoa da maiatzetik ekainera arte luzatuko dela.

3. Metodologia

Lan-metodologiak honako ekintza eta emaitzak jasotzen ditu:

1. fasea. Krisiaren aurreko kultura eskaintza eta eskaria aztertzea

- COVID19a agertu baino lehen zegoen kultura jarduerari buruzko informazioa biltzea. Horretarako, kontuan hartuko dira Behatokiak kultura jardueraren eskaintzari eta eskariari buruz egiten dituen estatistiketako datuak, bai eta bigarren mailako iturrietatik egiten dituen analisiak ere, hala nola Eustat, Lanbide edo Kultura Ministeriotik.
- Kultura agendari buruzko informazioa biltzea eta aztertzea beste iturri batzuetatik, hala nola Kulturkliketik.
- Kultura sektoreek abian jarri dituzten azterlanen informazioa aztertzea eta bateratzea.

Emaitza: krisiaren aurreko egoerari buruzko txostena, eta 2020ko jarduera-aurreikuspenaren estimazioa.

2. fasea. COVID-19ak kulturaren duen eragina aztertzea.

- Kultura sektoreek abian jarri dituzten inpaktu-azterketei buruzko informazioa biltzea.
- Sektoreetan eragina aztertzeko tresna dinamiko bat diseinatzea, zeinak bilduko duen jarduerari, enpleguari, jarduera ekonomikoari eta egoerari eta etorkizuneko itzaropenei buruzko informazioa, bai eta krisia arintzeko proposamenak ere. Sektore guztietarako gutxienezko tresna gisa planteatzen da, Behatokiaren laguntza teknikoak (ICC Consultores) egindako COVID-19ren eragin-adierazleei buruzko txostenean proposatutako planteamendua oinarri hartuta.
- Tresna hura sektoreetan aplikatzea. Bi informazio bilketa planteatzen dira apiriletik ekainera bitartean, alarma-egoera luzatzen den aldiaren arabera, eta jarduera ekonomiko orokorra pixkanaka suspertu arte. Horietako lehena apirilaren hasieran izango da. Bigarrena egoera orokorraren arabera baloratuko da.

Emaitza: jarraipena egiteko bi txosten, honako hauek jasoko dituztenak:

- begirada global bat, makro mailan, BPGan, enpleguan eta enpresetan duen eraginaren estimazioekin.
- azpisektore bakoitzerako begirada espezifikoko bat, bakoitzaren berezitasunen arabera. Horietako bakoitzerako laburpen-fitxa egingo da.

4. Egutegia eta epea

Proposamen honetan deskribatutako lanak egiteko 9 hilabeteko epea aurreikusten da, proposamena egiten den egunetik hasita, honako egutegi honen arabera:

FASEAK	2020		
	APIRILA	MAIATZA- EKAINA	UZTAILA- ABENDUA
1. KRISIAREN AURREKO KULTURA ESKAITZA ETA ESKARIA AZTERTZEA:			
Krisiaren aurreko egoerari eta jarduera-aurreikuspenari buruzko 2020ko txostena			
2. COVID-19K KULTURAN DUEN ERAGINAREN AZTERKETA			
Hainbat sektoretako azterlanak bildu			
Analisi-tresna diseinatzea			
Tresnaren aplikazioa (bi jasoaldi)			
Eraginaren jarraipen-txostenak			

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 1a



Bingen Zupiria Gorostidi
Kultura eta Hizkuntza Politika sailburua
Kultura eta Hizkuntza Politika saila